

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Kiotoko Protokoloaren akatsei kritikak

KARBONO DIOXIDOAREN hazkundera aurre egiteko gero eta onartuagoa dago Kiotoko protokoloa. Bertan, besteak beste, isunak aurreikusten dira isurpen-mugak hausten dituztenentzat, baina hobariak egon badaude, hala nola, bioenergiak sortzen dutenek era horretan sortutakoa kendu dezakete urtero ekoiztutako CO₂ kopurutik.

Timothy Searchinger AEBetako Princeton Unibertsitateko ikerlariak garbi adierazi du bioenergiak deskonturako balio badu, laster ikusiko ditugula munduko basorik zaharrenak desagertzen, egurra errez lortutako energiak desgrabatzen baitu. Jerry Melillo AEBetako Marine Biological Laboratory-ko ikerlariaren arabera, gaur egun elikagaiak ekoizten dituzten lur sailak bioenergia sortzaile bilakatuko dira. Elikagai gutxiago ekoiztuko da energia sortu ahal izateko.

Baina, nola kontuan hartu zuhaitzak botatzearen efektua, edo lurrak kalifikazioz aldatzearena? Ez da erraza, eta horregatik gero eta ikerlari gehiago bioenergia terminoa Kiotoko Protokolutik desagertzearen aldekoak dira, edo hobe esanda, bioenergia sortzeagatik karbono dioxidoaren emisio globaletik deskontuak egitearen aurkakoak.




Bioenergiaren ekoizpena saritzea kaltegarria izan daiteke zenbaitzuen ustez.

Itsasoak bereganatutako hiririk zaharrena

GREZIAN, Peloponesoko itsaso azpian, Pavlopetri dago, ia 100.000 metro koadro betetzen dituen hiria. Nic Flemming arkeologo britainiarrak topatu zuen 1967. urtean, eta orduz geroztik Brontze Aroko hiria zela —hau da, orain 4.000 urtekoa edo— pentsatu izan da.

Orain gutxi, Flemmingek berak, beste hainbat ikerlarirekin batera, Pavlopetriren inguruko mapak egiten hasi eta topatutakoa aztertu du. Lortutako datuekin hiriaren adina handitu egin da, orain uste baita 6.000 urte igaroko zirela hura desagertu zenetik. Ikertzaileek ez dute uste itsas mailaren hazkundera izan zenik hiria murgiltzearen erruduna. Lurrikarek edo bestelako gertaera naturalen bati egozten diote erantzukizuna, baina oraindik goiz samar da edozer gauza baieztatzeke.



Pavlopetri, itsaspeko hiria.

Igelen heriotza mota batzuen peskizan

Batrachochytrium dendrobatidis txanpinoi espezieak igelak hiltzen ditu, haien azalean aldaketa kimikoak eraginez. Zientzialariek badakite nola tratatu gaixotutako igelak, baina oraingoz laborategian baino ez.

<http://ttiki.com/7442> (Frantsesez)

Haurrak lau hankan aritzea arriskuei aurre hartzearekin batera doa

Haurrak lau hankan ibiltzen dira arriskua detektatzen dutelako? Edo lau hankan aritzeak laguntzen die arriskuak detektatzen? Edozein kasutan, badirudi bi gauzen arteko lotura dagoela. Horri buruz egindako ikerketa interesgarri baten berri topatu dugu.

<http://ttiki.com/7443> (Gaztelaniaz)

Sinestea ikustea da, eta ez alderantziz

Sinesmena eta ikusmena esatera zahar ugaritan lotuta azaltzen dira. Arruntenak “ikusi eta sinetsi” tankerakoak dira, baina psikologo talde batek aurkakoa frogatu du beste pertsonen emozioak detektatzeko garaian.

<http://ttiki.com/7444> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16